

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Hezkuntza interkultural eta inklusiboa. Zenbait gako

21.

***Hezkuntza interkultural eta inklusiboa.
Zenbait gako***

Amelia—Barquín López

Asko hitz egiten da “hezkuntza interkulturalari” buruz, baina zer esan nahi du?

Funtsean, baditu **bi esanahi**. Batetik, **atzeritar jatorriko ikasleen hezkuntzan lan egitea** dela ulertu da. Ikasle horiek arreta behar duten egoera jakin batzuetan egon daitezke: eskola berri batera iristea (ikasturteko edozein momentutan, edozein adinetan, askotariko eskola-ibilbideekin...); tokiko gizarteko hezkuntza edo hezkuntzak ikasi behar izatea; giro berri batera egokitu eta lagun berriak egin behar izatea; pobrezia sufritzea; diskriminatua izatea azalaren koloreagatik, tokiko hezkuntzak ez jakiteagatik, beren egoera sozioekonomiko eskasarengatik... Argi dago halako egoerak ez direla denak batera eta neurri berean gertatzen beste herrialde batzuetatik etortzen diren ikasleen artean, baina maiz ageri dira batzuk besteekin konbinatuta, eta, behar bezalako arretaz zaintzen ez badira, desberdinkeria sortzen da. **Eskolak ikasleen ondoan egon behar du, haien ezaugarri eta egoerak edozein izanik ere, ekitatearen ortzi-muga galdu gabe, abiapuntu desberdinkeriak gainditzen laguntzeko.**

Dena den, gaur egun, kultura-aniztasuna ez dago lotuta beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleekin soilik. Atzerriko ikasle gehiagorik etorriko ez balitz ere, gure gizartea askotarikoa izango litzateke aurrerantzean ere. **Hori da, hain zuzen, “hezkuntza interkulturala” terminoaren esanahia gaur egun: hezkuntzaren arloan gizartearen parte den aniztasunari erantzutea.** Badira –hemen jaio ala ez– etxean eskolakoak ez diren hezkuntzetan mintzatzen direnak, orain arte zabalduena izan ez den erlijio-sinesmenen bat dutenak, kultura-ezaugarri beregainak dituztenak, gehiengoak ez dituen ezaugarri fisikoak dituztenak... Aniztasun hori aberasgarria da, baina, diskriminaziorako aitzakia izan ez dadin, halaxe bizi behar da eskolan eta gizartean ere. Eta horrek bigarren esanahira garamatza.

Zein da beste esanahia?

Bestetik, **hezkuntza interkulturala ikasle guztiek (ez bakarrik atzerritar jatorrikoek edo ez bakarrik autoktonoek) garatu behar dituzten gaitasun eta jarreraren multzoa ere bada, hain zuzen mundu askotariko batean positiboki bizitzeko**, hau da, norberaren aldean kultura-ezaugarri desberdinak dituzten pertsonekin batera bizitzeko. Noizbehinka, komeni da ikastetxeetan geure buruari galdetzea ea gure proiektuak, gure balioek eta gure praktikek helburu horiek sustatzen ote dituzten. Hainbat jatorri edo ezaugarritako pertsonak elkarrekin egotea ez da, berez, interkulturalitatea; hezitzaileak garen heinean, interkulturalitatea gauzatu dadin, lan jakin bat egin behar dugu. Beste galdera on bat zera da: ea hezitzaileok ere ez ote genituzkeen garatu behar bizikidetzarako gaitasun horiek, ez bakarrik gure lan-esparruan dauden haurrek. Halakorik egiten ez badugu, nekez lagundu ahal izango diegu. Kooperazioaz ari gara, trebetasun komunikatiboak garatzeaz, gatazkak kudeatzeaz, pentsamendu kritikoaz, partaidetzaz, aniztasuna errespetatu eta estimatzeaz...

Alegia, batik bat jarrera bat sustatzean datza. Ez da beharrezkoa beste pertsona batzuen kulturez ikaragarri jakitea ere (nolanahi ere, ongi dator jakitea zer den garrantzitsua pertsona bakoitzaren bizitzan, izan "kulturala", izan bestelakoa). Oinarri nagusia sinpatia, enpatia, irekitasuna, errespetua, eta besteenganako interesa eta harreman positiboa agertzea da. Eta, batik bat, **gogoratzea gauza gehiagok batzen gaituztela, banandu baino**: oinarrizko premiak eta balioak (autoestimua, autonomia, aintzatespena, parte-hartzea, errespetua, tratu ona, afektua...) berberak dira pertsona guztiontzat.

Ba al du loturarik hezkuntza antirrazistarekin?

Hezkuntza interkulturalak arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako hezkuntza ere izan behar du. Helburua honakoa da: ikasleek injustiziaren aurkako pentsamendu kritikoa eta jarrera proaktiboa garatzea, eta **bai aurreiritzi eta estereotipoak bai diskriminazioa** (norberaren aurkakoak zein besteen aurkakoak) **identifikatzeko eta gainditzeko tresnak** eskuratzea.

Eskolak, horretarako, curriculumean esplizituki agertzen den lan bat egingo du, eta baita modu transbertsalean ere. Bizikidetzeta, beraz, ikastetxeen lehentasunetako bat izango da, eta, ildo horretan, errespetua, lankidetzeta, adiskidetasuna eta gatazkak egoki kudeatzeko bideak sustatuko ditu, ikastetxeko espazio eta denbora guztietan (ikasgelan, jolastokian, sarrera-irteeretan, jantokian...).

Eta ikasle ijitoak?

Herritar ijitoak ez dira immigranteak, eta desegokia da haietaz era horretan hitz egitea, baina badira eskolako eta gizarteko errealitate multikulturalaren osagai bat. Ijitoak diskriminatuak izan dira mende askoan zehar, eta, oraindik ere, neurri handi batean, desabantaila sozial handia sufritzen dute. Paradoxikoki, hezitzaile batzuek jarrera irekia dute immigranteekin eta, aldiz, jarrera ez hain positiboa ijitoekin; kolektibo horren inguruan zabaldu diren zenbait estereotipo bereganatu dituzte, are, batzuetan, ijito batekin sekula harremanik izan gabe ere.

Garbi dago pertsoneri talde jakin bateko kide izate hutsagatik ezaugarri eta iritzi negatiboak esleitzea ez dela tresna egokia talde horretako pertsonekin lan egiteko. Hezitzaileek etengabe aztertu eta analizatu behar dituzte bai beren burua bai beren ikuspuntu eta iritzi orokortzaileak. Beste alde batetik, **oraindik ere ahalegin handia eta ibilbide luzea egin behar dira eskola ijitoen eskola ere izan dadin, eskolako kide senti daitezen eta aintzatetsiak direla ikus dezaten**, eta, horretaz gainera, haien ibilbide akademikoan laguntzeko baliabideak izan ditzaten.

Baina faktore kulturala al da garrantzi- tsuena? Eta egoera ekonomiko eta soziala?

Batzuetan, arriskutsua da kulturaren arreta handiegia jartzea ("interkultural" hitzak berak horretara bultzatzen gaitu); izan ere, **desabantailarako faktore nagusia lotuta dago egoera sozioekonomikoarekin**. Gure gizartearen ezaugarri den desberdinkeria sozial gero eta handiagoaren ondorioz, atzerritar jatorriko ikasle, ikasle ijito eta, jakina, ikasle autoktono ez-ijito ugari dago desabantaila sozioekonomikoko egoeran. Batzuetan, haurren bizi-baldintzek ez dute laguntzen eskola-errendimenduan: gela batean bizi dira familia osoarekin, pobrezia energetikoa pairatzen dute, zailtasunak dituzte behar bezala elikatzeke, familiaren -estresa bizi dute baliabide faltarengatik... Komeni da alderdi hori kontuan hartzea, eskolako gastu ekonomiko gehigarriari begira: eskolako materiala erostea (digitala barne), eskolaz kanpoko ekintzak ordaintzea, kirol-ekipamendua, txangoak...

Ikasleen partaidetza ekitatiboa sustatzeko, aintzat hartu behar da ikasle bakoitzaren egoera ekonomikoa, eta **ikasle guztiek baliabideak eskuratzeko eta parte hartzeko modua dutela bermatzen duten neurriak** inplementatu behar dira. Oso garrantzitsua da irakasleek sentiberatasuna agertzea halako desabantailen aurrean, eta ekitatea sustatzeko estrategiak martxan jartzea egunerokoan. Bestalde, gizarte aporofobo batean bizi gara: kontsumitzeko gaitasun apalagoa izateak prestigiorik eza dakar, eta haur eta gazteek ere hala bizi dute. Batzuek ikusten dute beste ikaskide batzuek badauzkatela beraiek eduki ezin dituzten ondasun batzuk eta sentitzen dute horrekin lotuta dagoen bazterkeria.

Immigrazioaren seme-alabek eskola- emaitza kaskarragoak lortzen al dituzte?

Hain zuzen ere, eskola-arrakastari buruzko ikerketek diote **ikasleen emaitza akademikoetan eragin handia duela familien maila sozioekonomiko eta kulturalak**. Ez da faktore guztiz erabakigarria eta askotariko emaitzak ikusten dira estratu bakoitzean, baina, eskola-sisteman, ikasle batzuek desabantaila bizi dute beste batzuen aldean eta horrek eragiten du haien etekinean. Izan ere, familia batzuek eskolarekin "jarraitutasun" handiagoa dute (antzeko jarduerak egiten dituzte eta antzeko estiloak erabiltzen dituzte umeak hezteko), eta badituzte beren seme-alaben eskola-ibilbidean laguntzeko baliabide ekonomiko eta kulturalak: behar izanez gero eskolaz kanpoko errefortzu-eskolak jasotzea, ingeleseko eskolak, musika, kirola, liburuak, gurasoek (amak maizago) eskolako lanetan laguntzeko ezagutzak, denbora eta prestutasuna izatea, ikasteko espazio egokia, kezka ekonomiko larririk gabeko giroa, familian kultura-jarduerak egiteko aukera, gurasoek eskolan parte hartzea eta ikastetxeko funtzionamendu-mekanismoen berri izatea...

Abiapuntuko desabantaila orekatzeko orduan, beste ikasleak dira –hau da, familian baliabide gutxien dituztenak– irakasleen erronka nagusia. Familien eta eskolaren artean segidarik ez egoteak, gainera, **eragina izan dezake irakasleek ikasle horien gainean duten pertzepzioan eta itxaropenetan**; esate baterako, ikerketetan ondorioztatu denez, multzo horietako ikasleek maizago errepikatu ohi dute ikasturtea, kalifikazio berak lortuta ere.

Kontua da **eskola eta herrialde guztietako emaitzak ez direla berdinak**. Alegia, ebaluazioen arabera, gure inguruneko eta nazioarteko zenbait herrialde-tako eskoletan, desabantaila-egoeran dauden ikasleek emaitza hobekak lortzen dituzte; areago, batzuetan, askoz ere hobekak. Hori oso garrantzitsua da, zeren eta esan nahi baitu ez dagoela determinismoitsu bat eta eskolek hobeki lan egiten ikas dezaketela.

Bada, ordea, beste elementu garrantzitsu bat ere: ikerketen arabera, **desabantaila-egoeran dauden ikasle batzuen emaitza baxuek ez dute negatiboki eragiten egoera sozioekonomiko hobean dauden ikaskideen artean** eskolan elkarrekin egoteagatik. Baliabide hobekak dituen jende askok, baina, kontrakoa pentsatzen du: uste du bere haurrak gutxiago ikasiko duela beraren ikasgelan haur immigranteak edo egoera ekonomiko kaskarragoan bizi direnak baldin badaude. Halako pertsonak, horrenbestez, zenbait ikastetxe saihesten dituzte, ikastetxeotara zein ume joaten diren kontuan hartuta. Horregatik da hain garrantzitsua alderdi hori ongi ulertzea.

Hala eta guztiz ere, egia da kontrakoa bai betetzen dela: **desabantaila-egoeran dauden ikasleek emaitza kaskarragoak lortuko dituzte beren ikastetxeko ikasle guztiak edo gehienak egoera zailean baldin badaude**; aldiz, emaitza hobekak lortuko dituzte aniztasun sozioekonomikoa dagoen ikastetxeetan, eta horrek, gainera, ez du eragin negatiborik izango abantaila-egoeran dauden ikasleengan.

Eta eskolaren ondoren?

Badago beste alderdi bat kontuan hartu beharrekoa: **eskolaz kanpoko denbora**. Izan ere, **ikasleen arteko arrakala handiagotzen da** denbora horretan. Eskola-errendimendua hobetzeko gorago aipatu ditugun ordainpeko jarduerak egiteak edo aisialdia kalitate gutxiago jardueretan emateak (adibidez, pantailadun gailuen aurrean igarotzea, edo hainbat ordu telebista ikusten igarotzea) eragina du, aurreikus daitekeen bezala, eskola-emaitzetan. Oporraldiak ere desberdinkeria areagotzen du (*summer gap* edo udako arrakala), desberdintasuna egoten baita familiek beren seme-alabei eskain diezazkieketen jarduera eta esperientzien artean. Gero eta kontzientzia handiagoa dago errealitate horren gainean, eta garrantzitsua da desabantaila-egoeran dauden ikasleek ere kalitatezko aisialdia eta opor-jarduerak egitea, arrakala hori txikitzen laguntzeko. Eta, ahal den heinean, ez dira izango ume horiek bakarrik egoteko jarduerak; desiragarria da jardueretan ezaugarri sozial askotariko umeek elkarrekin parte hartzea.

Baina hainbeste erreparatu behar al diogu ikasleen jatorriari? Koloreak eta jatorriak berdin diola diotenez ez al dute arrazoirik?

Itzela dirudi, ezta? **Erantzuna honako hau izango litzateke: “bai”. Baina baita “ez” ere.** Itxura arrazializatua duten atzerritar jatorriko edo jatorri autoktonoko ikasleak diskriminazioaren biktima izaten dira gizartean, itxura horrengatik hain zuzen. **Lucía Mbomio** kazetariak kontatzen duenez, berari «beltz zikina» esaten zioten txikitari, eta ez, adibidez, «persona edo neskato zikina». Zenbait diskoteka eta aisia-gunetan, ez dute gazte arrazializaturik onartzen gure gizarte aurreratu honetan. Eta, ikastetxe batzuetan, atzerritar familietako ikasleak bildu ohi dira, eta, beste batzuetan, berriz, jatorri autoktonoko familia ez-arrazializatuak soilik. Gertatzen ari denaren gainean jarduteko, sortzen den diskriminazioa analizatu eta lantzeko, ezinbestekoa da hura izendatzea, eta, horretarako, **beharrezkoa da diskriminazio horren azpian dauden kategoriak erabiltzea.** Askotan, pertsona arrazializatuak adierazten dute «kolorerik ez dagoela» esatea zuriaren pribilegio bat dela, baita borondate ona agertu nahi dutenean ere.

Batzuek diote, asmo onez (edo, batzuetan, oso txarrez), eskolan ez direla kon-tuan hartu behar ez jatorria ez kolorea. Oraingoan ere, bai eta ez erantzungo genuke. Mundu ez-arrazista eta ez-aporofobo batean, jatorriak eta azalaren koloreak ez lukete garrantzirik izango; gaur egun, tamalez, ez gaude egoera horretan. **Oraindik ere garrantzitsua da errealitatea aztertzea eta ikasleei laguntzea analisi hori egiteko eta diskriminazioaren aurkako erresistentziak eraikitzeko tresnak garatzen.** Ildo horretan, ikastetxeetako ikasleen familia-jatorria zein den jakitea –eta ez datu horri ezikusiarrena egitea «axola ez duelako»– lagungarria izan daiteke zenbait gauza detektatzeko; esate baterako, jatorriaren arabera eskola-metaketa larriak gertatzen ari direla. Aldi berean, ikasle guztiek, bakoitzaren ezaugarriak gorabehera, legitimitate berarekin izan behar dute eskolako kide. Oreka zaila, etengabeko eta beti beharrezko ahalegina eskatzen duena. **Pat Parker** poeta beltzak hauxe idatzi zuen Nire laguna izan nahi duen zuri horri testuan: **«Ahaztu beltza naizela. Ez sekula ahaztu beltza naizela.»**

Zer da eskola-segregazioa?

Euskadiko eta, orobat, Espainiako estatuko eskola-sistemaren ezaugarrietako bat eskola-segregazioa deritzona da, hau da, **atzerritar jatorriko eta baliabide ekonomiko gutxiko ikasleak ikastetxe jakin batzuetan metatzea** (batez ere ikastetxe publikoetan, baina baita itundu batzuetan ere). Eskola-segregazioak ez du ahalbidetzen behar bezala islatzen ikastetxe horien inguruan bizi den populazioaren ezaugarriak. Zenbaitetan, aldeztu aurretik ere bazegoen bizitoki-segregazio batekin lotu izan da eskola-segregazioaren fenomenoak, baina, errealitatean, askotan, desabantaila-egoeran dauden ikasle asko metatzen dituen eskola baten ondoan, ikasle ia guztiak klase ertainekoak eta autoktono ez arrazializatuak dituen beste bat egoten da; beraz, eskola-segregazioa ez da, maiz, auzoko edo herriko segregazioaren ondorioa.

Ikastetxe elitistenetan, hileroko kuota bat ordaindu behar izaten da, eta horixe da familiak banatzeko modu nagusia, geruza sozial oso batek ez baitu aukerarik ikastetxeotara sartzeko, nahiz eta gehienak ikastetxe itunduak izan, hau da, funts publikoz hornituak eta, beraz, herritar guztien zergen bidez ordainduak. Oraindik ere biziki eztabaidatzen da ea funts publikoak nahikoak diren ikastetxeok mantentzeko, baina, eztabaidaren terminoak argitzeko, hezkuntzako agintariak gardentasun handiagoz aurkeztu behar lituzkete kontuak. Nolanahi ere, familiek ordaintzen dituzten kuotei esker, ikastetxeok zenbait zerbitzu eta aukera estra eskaini ditzakete, beste ikastetxeek ez bezala; kapital ekonomiko eta kultural handiagoko familiek estra horiek estimatzen dituzte, eta, hain zuzen, hori bada beste arrazoi bat eskola horiek aukeratzeko. Hala, **homogeneotasun sozial urriko ikastetxeak eratzten dira, hau da, familia bakoitza bere klase sozial eta jatorri bereko familiekin elkartzen da**, eta horixe da, halaber, arrazoi garrantzitsuenetako bat seme-alabak nora bidali aukeratzeko orduan, batez ere aukeratzeko baliabideak dituzten familientzat: ikastetxera nor joaten den begiratzen da.

Zer ondorio dakartza?

Hezkuntza-komunitatearen zati batek eta zenbait erakundek hamabost urtetik gora daramatzate immigrazioarekin loturiko eskola-segregazioa salatzen euskal gizartean, eta bereziki azkenaldian entzun da haien ahotsa. Hezkuntza-administrazioak, hala ere, ez du neurri eraginkorrik hartu fenomenoari aurre egiteko, eta urtetik urtera larriagotzen ari da. Bestalde, diskriminazioa "naturalizatu" egin da gure gizartean, baita haren isla den desberdinkeria soziala ere; "normalizat" hartzen da: segregazioa beti gertatu izan den eta beti gertatuko den fenomeno moduan ikusten da, bai gure gizartean, bai beste batzuetan.

Fenomenoaren ondorioak aski ezagunak dira hezkuntza-ikerketan. **Kohesio sozialean negatiboki eragiten du**, desberdinen arteko harremanen defizita dakarren heinean: bizikidetzaz ikasteko eta gaitasun interkulturalak garatzeko aukera galtzen da horretarako esparrurik egokienean, hau da, eskola-esparruan. Bestalde, **desabantaila-egoeran dauden ikasleen metaketaren ondorioz, ikasle horiek eskola-errendimendu baxuagoa izateko joera dute; esparru heterogeneoagoetan, errendimendu horrek gora egingo luke, abantaila-egoeran daudenei akademikoki kalte egin gabe**. Baina, gainera, azken horiek bertan ikaskuntza garrantzitsuak garatuko lituzkete, aniztasunik gabeko ingurunetan ezinezkoak izango liratekeenak.

Paradoxikoki, konpromiso sozial handieneko ikastetxeak eta immigrazioaren hurrekin eta desabantaila-egoeran daudenekin lan egiteko hezkuntza-, gizarte-, hizkuntza- eta kultura-erronkari heldu diotenak estigmatizatu egin dira, eta klase ertaineko familia autoktono ez-ijito batzuk haietatik ihes egitea ekarri du. Ondorioz, segregazioa areagotu egin da. Ikastetxeok ez dute estimu edo aintzatespen sozialik izaten, eta fenomeno hori ere naturalizatu da, bai gure gizartean, bai beste batzuetan: balio sozial ikaragarri handiko langintza horretan inplikatzan diren ikastetxeak balio gutxiagokotzat hartzen dira hori ere "normala" balitz bezala.

Ikasle horiek ez-desiragarritzat hartuko ote dira aurrerantzean ere ikastetxe askotan? Garai honetan, kontuan izanda euskal gizartean jaiotza-tasa Europako baxuenetako bat dela (horren ondorioz, datozen urteetan, ikasgelak eta, behar bada, ikastetxeak ere itxiko dira), desabantaila-egoeran dauden ikasle horiek *desiragarriak* izango dira, agian, etorkizun hurbil batean.

Nongoak dira atzerritar jatorriko ikasleak? Identitatea eraikitzea

Immigrazioaren haur eta gazteek, are gehiago arrazializatuak badira, **zailtasunak dituzte hazten ari diren eta, askotan, jaio diren tokiko kide direla sentitzeko**, eta hori, jatorri autoktonoko pertsona ez-arrazializatuaren aintzatespen faltagatik izaten da neurri handi batean. Hala eta guztiz ere, pertsona horiek ez dira jada sentitzen beren jatorriko lurraldekoak bakarrik. Kontua da, maiz, atzerritar gisa tratatzen dituztela, bai gizartean, bai eskolan, eta batzuetan, diskriminazioaren biktima izaten dira; horrek ez du laguntzen pertenenentzia-sentimendurik garatzen.

Amin Maaloufek bere esperientziatik abiatuta idatzi zuen identitate pluralak garatzearen onurez. **Identitate plural edo anizkun bat garatuz gero, gazteak hemengo sentituko dira** (eta hori hainbat modutara uler daiteke eta ulertzen da), **baina baita hango ere, beraren jatorriarekin edo beraren familiarena-rekin loturik** (hori ere modu askotara bizi daiteke). Hau da, ez dago kidesetasun edo pertenenentzia identitario bakar bat aukeratu beharrik, eta, horrenbestez, ez dago zertan sentitu beste pertenenentzia bati edo batzuei traizio egiten zaienik; hau da, galdetuz gero «baina zu, egiatan, nongoa zara?», ez dago erantzun bakarra eman beharrik. Badira gazte batzuk inongo sentitzen ez direnak, inon ez baitituzte hangotzat hartzen. Gazteon deserrotze-sentimenduak egonezina sortzen du, eta egonezin horrek ondorioak dakartza, bai haientzat, bai gizartearentzat. Irakasleak kontziente baldin badira auzi horren garrantziaz, eskolak lagundu dezake halakorik gerta ez dadin, eta, horretarako, garrantzitsua da irakasleek **ikasleak atzerritar gisa ez tratatzea**, kanpokoak izate horretan ez tematzea. Ikasle guztiak, lan egiten dugun gazte guztiak hemengoak dira; ez du axola non jaioak diren. Batzuetan, honelakoak entzuten dira: «**“Beren kultura”, horrela egiten dute**». «Beren kultura?».

Kultura bakarra balute bezala, ongi definitua, hots, jatorriko kultura? Garbi dago pertsona horiek beren jatorriarekin eta beren familiarenarekin loturiko bizipen kulturalak izan ditzaketela, baina, aldi berean, **hemen hazten eta hezten ari dira**, eta hemengo erreferentziak hartzen, hemen jaiotako beste edozein gazte bezalaxe. Hortaz, egokia da *hemengo* moduan tratatzea. Bestalde, beren familiaratik edo jatorriko taldetik erreferentziak ere jasoko dituzte, eta halakoak ere oso desberdinak izan daitezke are jatorri bereko jendearen artean ere. Seme-alabek ez dute jasotzen "pakete kultural" jakin bat, beti berdina.

Immigrazioaren seme-alabek ikasten al dute euskara?

Idea zabaldua da oraindik beste herrialde batzuetatik etorritako ikasle gehienak A ereduan eskolatuta daudela (hau da, gaztelania hutseko ereduan), eta hori euskararen normalizaziorako oztopo gisa ikusi izan da. Baina **Euskal Autonomia Erkidegoan** hori dagoeneko ez da horrela. Azken urteotan, atzerritik etorritako **ikasle gehienak D ereduan eskolatu dira (euskara hutseko ereduan); zehazki, eskola publikoko D ereduan, zeina ahalegin itzela egiten ari baita familia ez-euskaldunen umeak euskalduntzeko**, izan hemen jaitako gurasoak, izan atzerrian jaiotakoak. B eredura (bi hizkuntzetan) joaten diren atzerritar jatorriko ikasleak gutxiengo dira, eta are gutxiago, azkenik, A eredura joaten direnak. Proporzioak jatorri autoktonoko ikasleen mailara hurbiltzen ari dira, nahiz eta oraindik ere ez dauden guztiz parean, azken horiek gehiago egoten baitira euskarazko ereduetan.

Bi hizkuntza ofizialak jakiteak, epe ertainera, hizkuntza bakarra jakiteak dakarren desabantaila ekiditen laguntzen du, kontuan izanik euskal ikasle gehienak biak ari direla ikasten. Hezkuntza-sistemarentzat erronka bat da ikasle guztiek gero eta gaitasun hobea izatea euskaraz eta, aldi berean, euskara gero eta gehiago erabiltzea.

Nolanahi ere, **garrantzitsua da ikasleen egoerak banan-banan analizatzea**. Tokiko gizartean berandu eskolatuz gero –adibidez, nerabezaroan–, euskara gutxi erabiltzen den eremuetan, gogoeta egin beharko da, eta erabaki zer ikasketa-hizkuntza den komenigarriena pertsona horren eskola-ibilbiderako.

Bestalde, **beharrezkoa da familiei azaltzea zer egoera soziolinguistiko da-
goen bizi diren tokian**, zer-nolakoa den euskara berreskuratzeko egiten ari den prozesua, zer eredu eta zergatik lehenesten dituzten familia autoktonoek... Eta, horretaz gainera, kalean euskara gutxi entzuten den tokietan, azaldu behar zaie eskolako denbora ez dela nahikoa hizkuntza ongi ikasteko –eta ongi ikas-
tea oso garrantzitsua da ikasketak egoki eramateari begira– eta komeni dela eskolaz kanpo ere lantzea: eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz egitea, telebista euskaraz ikustea, irakurtzea... Nork azaldu behar die hori guztia? Askotan, zoritxarrez, inork ez die azaltzen. Hutsune horren aurrean, desiragarria litzateke irakasleek beren gain hartzea lan hori, ahal duten neurrian.

Eta zer gertatzen da eskolan familia-hizkuntzekin?

Gaur egun, ehun hizkuntza baino gehiago iritsi dira euskal gizartera immigrazioarekin batera (hala zen 2008an, Ikuspegik eta Unesco Etxeak egindako ikerketa baten arabera). Komeni da gogoratzea immigranteen hizkuntzak minorizatuta daudela gehiengoaren gizartean. Salbuespena, Hegoaldean, gaztelania da, argi eta garbi, Hegoaldeko euskal gizarteko hizkuntza hegemonikoa eta EAEn bizi eta atzerrian jaiotako pertsonen erdia baino gehiagoren ama-hizkuntza den heinean. Etorritako hizkuntzek jatorriko herrialdeetan zer estatus daukaten gorabehera, euskal gizartean ez dute ia presentziarik giro jakin batzuetatik kanpo, ezta prestigiorik ere, eta ez dira eskolako komunikazio-hizkuntzak... Horren ondorioz, gerta daiteke ikasleek beren familia-hizkuntza alde batera uztea.

Hala eta guztiz ere, gai horri buruzko literatura zientifiko ugarian irakur daitekeenez, **familia-hizkuntza mantentzea garrantzitsua da**. Batetik, identitate pertsonal eta kulturalaren osagai garrantzitsua delako, eta familiako kide batzuekin komunikatzeko bide bat. Bestetik, ikerketek erakutsi dute lehen hizkuntza ongi garatzeak bigarren hizkuntza edo hizkuntzak ikasten laguntzen duela. Hain zuzen, oraindik ere oso zabaldua dago elebakartasunaren ideologia, eta horrek eskolako hizkuntzarekin ahalik eta ukipen handiena bultzatzea eragiten du, baina **frogatuta dago familia-hizkuntzan gaitasun ona edukitzeak asko laguntzen duela tokiko gizarteko hizkuntzan edo hizkuntzetan trebetasun linguistikoak hobetzeari begira**, eta, horretaz gain, oinarri sendoa izan daitekeela gaitasun kognitibo orokorrak zabaltzeko. Familia-hizkuntza galtzeak, beraz, baliabide pertsonal eta kolektibo baliotsu bat galtzea esan nahi du.

Amin Maaloufek (1999) oso argi azaltzen du zein garrantzitsua den eskolan familia-hizkuntzenganako estimua lantzea autoestimua, identitatearen eta elkarrekikotasunen arloekin lotura dela eta:

Hitz gakoa «elkarrekikotasuna» da. Bestea erabakitasunez bilatzeko, besoak zabaldu eta burua goratu behar dira, eta besoak zabaltzeko modu bakarra burua goratzea da. Pertsona batek ematen duen pauso bakoitzeko sentitzen badu beretarrak traizionatzen ari dela, bere buruari uko egiten ari zaiola, bestearengana hurbiltzeko saioak baliogabeak izango dira; hizkuntza bat ikasten ari banaiz eta hizkuntza horretako hitzunek ez badute nirea errespetatzen, haien hizkuntzan mintzatzea ez da izango irekierazko keinu bat, baizik eta mendekotasunezko eta sumisiozko ekintza bat.

Eskolan familia-hizkuntzen aintzatespen positiboa eginez gero, ikasleek aiseago mantendu eta garatuko dituzte. Garbi dago irakasleek ezin dituztela beren ikasle guztien familia-hizkuntzak jakin, baina jakin dezakete zein diren hizkuntza horiek eta zer ezaugarri nagusi dituzten, eta ikas ditzakete hitz batzuko ere. Eta, horretaz gainera, estrategiak balia ditzakete hizkuntza horienganako estimua sustatzeko; adibidez, haien literaturako adibideren bat ematea, ikaskide guztiek abestiren bat ikastea, eraikinaren sarreran ongi etorri egiteko kartel bat jartzea ikastetxeko familia-hizkuntza guztietan... Era horretan, eskolako giroan hizkuntza-aniztasuna aintzatestea lortzen da.

Eta ez dago azaldu beharrik garrantzitsua dela ikasle guztien izenak kontu handiz ahoskatzea. Azkenik, irakasleek transmiti dezaketen beste mezu garrantzitsu bat izan liteke familiei komunikatzea garrantzitsua dela beren seme-alabek beren familia-hizkuntzei eustea, ikastea eta ahalik eta hobekien garatzea.

Nola tratatu ikasleak eta familiak kulturaren esparruan?

Zenbaitetan, ikasle batzuen kultura-desberdintasunean arreta jarri nahian, **ez-augarri folkloriko eta estereotipatuak goraipatzeko arriskua sortzen da**, eta horrek ikasle horien "alterizazioa" dakar. Alegia, nahi gabe, ikasleok "bestetzat" hartzea sustatzen da, hau da, "arraro" moduan kontsideratzea ikasle "estandarren" ondoan. Egiaz, **ez da irakasleen zeregina ikasleen jatorriko kultura irakastea edo bultzatzea, baizik eta ikasleei aukera ematea beren egunerokoaren berri emateko** (izan kulturari loturik, izan bestela), alde askotatik; horretarako, esparru egoki batzuk balia daitezke (Haur Hezkuntzako lehen orduko batzarra, artearen txokoa...), aparteko jarduerarik asmatzeko beharrik gabe. Gakoa honetan datza: haur bakoitzari aukera ematea beren familia-bizitzan eta jatorriko taldean gertatzen dena ikasgelan partekatzeko eta ekarpen hori positiboki hartzea bai irakasleek bai gainerako ikasleek. Ikasle guztiez ari gara, ez bakarrik atzeritar jatorrikoen.

Beste aukera bat da alderdi jakinen bati prestigioa emateko jarduerak diseinatzea eta martxan jartzea, talde minoritarioetako ikasleen autoestimua sustatzeko (adibidez, ikasle batek bere familiarekin parte hartzea merkatuko salmentan). Halako jarduerak eraginkorrakoak dira "zeharka" egiten direnean, hau da, denok parte hartuz, ikasle jakin bat desberdin, berezi edo arraro gisa seinalatu gabe. Aldi berean, garrantzitsua da jardueretan estereotipoak ez indartzea. Eta bereziki inauterietan mozorrotzeko orduan, ikastetxe batzuetan oraindik ere ohikoa baita "txinatarrez" edo "tribuko beltzez" mozorrotzea.

Helburua da –eta ez da batere erraza–, batetik, “oharkabeen pasatzeko eskubi-dea” eta ikasleek seinalatua ez izateko premia kontuan hartzea, eta, bestetik, aniztasunari erreparatzea, oinarritzko betebeharrak pedagogikoa den heinean. Biak orekatzea da erronka. Horretarako, kontuan hartu behar dira ikasleen adina, izaera, hezkuntza-premiak, ikasle batzuek besteengandik ez desberdintzeko duten nahia... Helburu horrekin loturik, ez da komeni atzerritar jatorriko ikasleak etnikoki edo jatorriaren arabera bereiztea (hau da, inor ez dadila betirako izan «marokoarra», «kolonbiarra», «pakistandarra», «jijitoa»...).

Komeni da **ikasleak eta haien familiak “etnikoki” ez tratatzea**. Alegia, alde batera utzi behar da “kuskusaren pedagogia” deritzona, hau da, atzerritar jatorriko pertsonen eskatzea joka dezatela autoktonoen “haien kulturaz” dakitenaren arabera: Marokoko emakume bat bazara, henna-tailer bat eta kuskus-plater bat eskaintzea; Saharako emakume bat bazara, tea prestatzea; Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen bateko gaztea bazara, perkusio-instrumenturen bat jotzea... Hobe da halako ohiturak berraztertzea, nahiz eta halakorik eskatuz gero atzerritar jatorriko pertsonen jarrera onez erantzun ohi duten oro har. Herrialde aberatsetako immigrantei eta autoktonoei, bestalde, ez zaie eskatzen besteen aurrean performance etnikorik egiteko; areago, askotan, autoktonoen uste dute «beraiek ez direla etnikoak» (eta, horregatik, festa batera joan daitezke supermerkatuan erositako patata frijituen poltsa batekin, besterik gabe), etnikoak besteak baitira, eta horregatik eskatzen zaie gauza tipikoak egiteko nahiko maiz.

Ez dezagun pentsa atzerritar jatorriko gaztetxoak “beren” kulturaren ordezkariak direnik. Ez dira inongo talderen ordezkariak. Aitzakia islamikoko atentaturen bat gertatu denean, beti egon da baten bat gazte musulman batengana jo duena azalpena eskatzeko asmoz, gazte hori terroristaren talde berekoa balitz bezala! Eta, halakoetan, gazteak, argudiatzeko gaitasunik ezean, defentsiban jartzen dira, planteamendua faltsu horretatik atera ezinik. Ikasleak horrela tratatzea kaltegarria da beraientzat, eta profeziari berari jarraituz betetzen den profezia bihur daiteke.

Halaber, ez da egia ikasgelan hainbat kultura batzen direnik, nahiz eta horixe adierazten den batzuetan aniztasuna zein positiboa den azpimarratzeko. **Ikasgelan ez da kulturarik batzen; pertsonak batzen dira**, eta pertsona horiek kultura-ezaugarri desberdin batzuk izan ditzakete.

Familietatik datorren guztia baliagarria al da?

Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta eguneroko praktika ezin dira erlatibismo kulturean erori. Izan ere, horrek familietatik datorren guztia analisi kritikorik egin gabe onartzea lekarke, alegia, kulturala den guztia besterik gabe onartzea eta estimatzea. Ikastetxeak baditu balio batzuk, baina gerta daiteke ikasle guztien familiek balio horiek ehuneko ehunean ez partekatzea edo praktikatzea. Tokiko kulturari, adibidez, badira zenbait kontrabali: lodifobia, zaharfobia, lehiakortasun gaixotia, sexismoa, homofobia eta lesbofobia... Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren oinarriko balioen arabera, hala ere, halako kontrabaliok ez dira ontzat hartzen, nahiz eta familia batzuek –izan hemen jaioek, izan kanpokoek– defendatzen edo praktikatzen dituzten...

Gerta daiteke ikasleen familietan –immigrante zein autoktonoetan– jarrera eta praktika matxista, lesbofobo, homofobo, klasista, elitista edo aporofoboak egotea... Eta eskolan familia guztiekin komunikatu beharra dago. Baina gauza bera gertatzen zaie hezitzaileei ere, haiek ere ez baitaude halako ideia eta praktike-tatik at. **Irakasleen zeregina ez da familiak eraldatzea** (nahiz eta batzuetan eskolako lanaren oihartzun positiboak iristen zaizkien), **baizik eta justiarekin, errespetuarekin eta inklusioarekin loturiko balio eta bizipenak eskaintzea ikasleei.** Horixe izan behar litzateke eskolaren helburua.

Nolako izan behar du familiekin tratuak?

Irakasleek tratu konstruktiboa izan behar dute familiekin, haien ezaugarriak eta balioak berdin zein diren, eta ez dute eparirik eman behar («familia hau arrazista da, edo matxista da, edo...»), ezta epai horietan oinarrituta haiekin modu batera edo bestera erlazionatu ere. Familiekin tratuak errespetuzko elkarrizketarako bidea eman behar du, haien seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruzko negoziazioak sor daitezen.

Garrantzitsua da aintzatespena egotea familiekin tratuaren oinarrian, irakasleak haien ideia eta balioekin guztiz bat ez etorri arren. Entzun egin behar dute, ulertu, tratu ona eman, denean ados ez badaude ere... Eta ez dugu ahaztu behar haur edo gazteak direla helburu partekatua eta merezi dutela irakasle eta familien artean behar adina elkarrizketa egotea.

Familia batekin desadostasun bat sortzen bada, ezinbestekoa da ongi bereiztea zer den garrantzitsua gatazka horretan (non dauden balio zentralak) **eta zer den bigarren mailakoa** (eta, beraz, negoziatorako eremua). Neskato bat igeriketa-ikastarora joaten ez bada familiak nahi ez duelako, adibidez, bainatzeko arroparen inguruan negoziata liteke, edo aldagelak intimitatean erabiltzeko aukeraren inguruan, halakoak ez baitira hezkuntza-proiektuaren alderdi zentralak; neskatoek jardueretan parte hartzea, aldiz, garrantzi beteko helburua da.

Kontua ez da arazotsua izan daitekeen edozein auzi familien kulturarekin lotzea. Badira familia batzuk, berdin haien jatorria zein den, telezaborra barra-barra kontsumitzen dutenak, edo soilik aurrez prestatutako jakiak jaten dituztenak... Alegia, familiek egiten dutena eztabaidagarria izan daiteke –legez kanpokoa izan gabe ere–, baina dena ez da "kulturala", ezta gutxiagorik ere. Eta ez dugu ahaztu behar familiaren baitako pertsona edo norbanako faktorea, familia ez baita talde homogeen bat. Gerta daiteke, adibidez, aitak edo amak, edo bi amek, edo amak eta amonak, eta abarrek, jarrera, ideia eta praktika desberdinak izatea. Eta, oraingoan ere, edozein familiaz ari gara, ez soilik atzeritar jatorrikoen.

Familia guztiei aukera emanez gero eskolako bizitzan zeinek bere erara parte hartzeko (ikasgelan lagunduz, ikastetxeko jardueretan parte hartuz, organo eta batzordeetan parte hartuz...), **eskola-giroa hobetu eta bizikidetzaren kalitatea areagotuko ditugu**. Izan ere, horretaz gainera, familiek ikastetxearekin duten harremana eta inplikazioa onuragarriak dira beren seme-alaben eskola-errendimendurako, bereziki desabantaila-egoeran daudenen kasuan. Horrenbestez, komeni da halako lankidetzak sustatzea.

Zenbait auzi arazotsu: genero-berdintasuna, LGTBIQ+ errealitatea...

Genero-berdintasuna eta aniztasun afektibo-sexuala errespetatzea funtsezko bi balio dira eskolan. Legeek berek halaxe jasotzen dute, eta eskolan garatzera behartzen dute; horretaz gainera, baliook justiziaren, errespetuaren eta inklusioaren hezkuntza-diskurtsoaren parte dira. Bi baliook tokia izan behar dute, ez soilik diskurtsoan, baizik eta baita egunerokoan ere. Jakina denez, halako balio eta praktikak eraikitzen ari dira ikastetxeetan; oraindik ere asko dago egiteko: gaur egungo eskola-curriculumuma androzentrikoa da, eskoletako jolas-tokiak futbol-zelaiak dira, eta *bullying* homofobiko/lesbofobiko/transfobikoak bere horretan dirau (zenbait adibide esanguratsu aipatzearen). Hori guztia gizartearen isla da, oraindik ere bide luzea geratzen baita egiteko. Ikasleen familien jatorriko herrialdeetan ere gauza bera gertatzen da: berdintasunak, errespetuak eta inklusioak bide luzea dute egiteko, nahiz eta desberdinkeria eta diskriminazioa aldatu egiten diren gizarte batetik bestera eta toki batzuetan bereziki krudelak diren.

Zenbaitetan, pertsona autoktono batzuek matxistatza jotzen dituzte atzeritar batzuk, batez ere herrialde edo erlijio jakin batzuetakoak. Ez du merezi sailkapen bat egitea, nor den matxistagoa eta nor gutxiago, halako usteak estereotipoetan oinarrituta egoten baitira sarritan, kontuan hartu gabe pertsona guztiek ez dituztela halako alderdiak era berean bizi, jatorri bera izanda ere. Nolanahi ere, badakigu berdintasunezko eta errespetuzko balio eta praktikak ez direla berdin ulertzen familia guztietan (izan autoktonoak, izan atzeritarra); **eskolari dagokio ahalegin bat egitea ikasle guztiek giro egokia izan dezaten balio eta praktika horiek bizi eta garatzeko.**

Beste auzi arazotsu bat: erlijioa

Eskolan kudeatzen zaila den beste auzi bat da beste erlijio batzuetako ikasle gero eta gehiago egotea, batez ere musulmanak. Hezkuntza-sistema kultura katolikoz blai dago, era naturalizatu batean, eta, horrenbestez, herritarren gehiengoari ikusezin gertatzen zaio. Horrexegatik, beste erlijio batzuetako ikasleen etorrera zailtasun moduan bizi zan da hainbat ikastetxetan. Aipa ditzagun jai- eta opor-egunen egutegia, zeina Jesusen bizitzari jarraituz eta santuekin loturiko jaiegunetan oinarriturik egin baita, edo erlijio katolikoaren ikasgaia modu konfesionalean eskaintzea, edo Gabonetako kanten eta eskolako beste kanta batzuen edukia, edo Gabonetako apaingarriak... Horretaz gainera, funts publikoekin sostengatutako ikastetxe batzuetan erlijio katolikoa irakasten da, baina ez da bere alternatiba eskaintzen (eta hori legearen aurka doa), otoiiz egiten da eskola-ordutegiaren barnean...

Hori guztia naturalizatuta dago, tradizioaren eta praktika errepikatuen eraginez; hortaz, beste sinesmen batzuetako pertsonak egiten dutena markatua da, "arraroa", eta haien aldarrikapenak desegokiak iruditzen zaizkie gehiengoaren kulturako pertsoneri. Denborak aurrera egin ahala, familia musulmanek informazioa eskuratu dute, ahaldundu egin dira, eta eskaerak egiten dizkiote eskolari: halal menua eskatzen dute, erlijio islamikoa ikasgai gisa eskaintzea nahi dute... Horren guztiaren aurrean gatazka sortzen da eskola-instituzioko sektore batzuekin.

Ikastetxeetan erlijioa modu konfesionalean irakasteari dagokion legedian, eragin handia dute Espainiaren eta Vatikanoren arteko akordioen ondorioek, eta pertsona ugarirentzat hori anakronikoa da. **Legedi horretan, hala ere, jasotzen da eskubide bat dela eskoletan erlijio katolikoaz gain erlijio musulmana, judua eta ebanjelikoa irakastea** modu konfesionalean, baina, errealitatean, ez da halakorik egiten, salbuespen gutxirekin. Nolanahi ere, legedian ez da jasotzen erlijioa eta erlijioaren historia modu ez-konfesionalean ezagutzeko aukera, eta hori desiragarria litzateke bizikidetzari begira, bereziki ikastetxeetan aurkitu daitezkeen konfesioen kasuan. Hona hemen adibide txiki bat: irakasleek badakite noiz ospatzen diren jaiegun katolikoak, hau da, "beren" jaiegunak (praktikanteak izan ala ez), baina ba al dakite zein diren beste konfesio batzuetako ikasleen ospakizunik garrantzitsuenak eta zer zentzu duten haientzat?

Beste auzi arazotsu bat da praktika erlijiosoarekin identifikaturiko arropa, bereziki neska musulmanen hijaba. Gogoratu dezagun ikastetxe batzuetan eraikinean sartzea edo jardueraren batean parte hartzea debekatu izan dietela hijaba jantzita zihoazen neskei. Arropa horren eta haren esanahien inguruko polemika puri-purian dago, baina hemen ez dugu gaian sakonduko. Esan dezagun, nolanahi ere, **ororen gaintik ezinbestekoa dela ikasle guztiek hezkuntzarako duten eskubidea bermatzea.**

